



Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar taldeko legebiltzarkide Dani Maeztu Perezek, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA aurkezten du osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin, "Bertan beheta utzitako EAEko harrobien inguruan eta horien leheneratzearen inguruan".

ZIOA

Industria eta Berrikuntza sailaren datuen arabera, gaur egun 53 harrobi ari dira ustiaketa lanetan. Euskadiko Autonomia Erkidegoan, ordea, badago ustiaketa lana burutu ondoren gaur egun abandonatuta dagoen hainbat harrobi. Sailak eskaintzen duen informazioaren arabera, harrobi horien kopurua 1400 da gutxi gora behera, eta horietatik gehienak hutsuneak edo datazio ezezaguneko lanak direlarik.

2000 urtetik aurrera eman diren ustiaketa baimenak ekainaren 20ko erauzketa-jarduerak kaltetutako naturguneak leheneratzeari buruzko 115/2000 Dekretuak (uztailaren 20ko EHAA, 139 Zk.a) jasotzen duenaren arabera eman dira. Dekretuan jasotzen da proiektuek dagokien ustiaketa baimena lortzeko ingurumen inpaktuaren ebaluazioa behar dutela; hala nola, ustiaketa bukatzen denean zonaldea berreskuratzeko egitasmoa ere erredaktatua izan behar dute.

Goian aipatu den 1400 harrobien artean gehienak hutsuneak edo datazio ezezaguneko lanak diren arren, kopuru horrek jasotzen du baita ere azken urteotan leheneratze egitasmo gabe ustiaketa lana utzi duten hainbat harrobi. Hori hurrengoagatik gertatzen da: aurrean azaldu den moduan, 2000 urtea baino lehen emandako baimenek ez zuten aurreikusten leheneratze egitasmoaren derrigorrezkotasuna jasotzen.

Industria eta Berrikuntza sailak zonalde hauen egoera hobetzeko asmoa adierazi du. Paisaia aldetik, duten natur balioaren aldetik eta segurtasunaren aldetik abandonatutako zonalde hauek leheneratzea komeni da. Horretarako, bertan behera utzitako meategietako egiturak segurtatzeko eta integratzeko urtero bideratzen da diru partida jakina Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan. 2008an 1.000.000 euro izan zituen partida honek, 2009an 658.013, eta 2010ean 340.000 euro bideratuko dira.

Diru hori ahalik eta modu eraginkorrean inbertitu aldera eta gai honen harira EAEn dauden beharrianak ezagutze aldera, hurrengo legez besteko proposamena aurkezten dugu:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA


Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1- Sei hilabeteko epean, aurkez dezala EAEn abandonatuta dauden harrobiak berreskuratzeko plana. Planean jasoko da leheneratuak izan behar duten zonaldeen zerrenda, leheneratzea gauzatzeko behar den diru kopurua eta leheneratzea burutzeko egoki deritzon egutegia. Hala, plana garatzeko erabili diren irizpideak ere jasoko ditu (harrobi abandonatu bakoitzak zenbat urte daramatzen ustiatua izan gabe; harrobia kokatuta dagoen gunearen balio naturala; zonaldeak behar duen segurtasun maila; etab.).

2- Planak jasoko duenaren harira, aurkez dezala urtero arlo horretan egin asmo duen inbertsioen txostena. Txostenean jasoko da urte horretan leheneratuko diren harrobien zerrenda, burutuko diren jarduerak eta hori gauzatzeko behar den diru kopurua.

3- Eusko Legebiltzarrean aurkez dezala harrobiak berreskuratzeko plana, taldeen eta eragileek ebazpen proposamenak egin ahal izateko.

Gasteizen, 2010eko otsailaren 9an



Dani Maeztu Perez

Aralar taldeko legebiltzarkidea



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

ITZULPEN ZERBITZUA
SERVICIO DE TRADUCCIONES

A la Mesa del Parlamento Vasco

Dani Maeztu Perez, parlamentario del grupo Aralar, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente PROPOSICIÓN NO DE LEY para su debate en pleno, sobre las canteras abandonadas en Euskadi y su recuperación.

JUSTIFICACIÓN

Según datos del departamento de Industria e Innovación, en la actualidad hay 53 canteras en explotación. En la Comunidad Autónoma Vasca, en cambio, existen varias canteras que actualmente están abandonadas tras llevar a cabo las labores de explotación. Según la información que ofrece el departamento, el número de esas canteras es, más o menos, de 1400, y la mayoría de ellas son cavidades o trabajos de datación desconocida. Los permisos de extracción que se han dado desde el año 2000, han sido otorgados según lo recogido en el Decreto 115/2000 (BOPV de 20 de julio, nº 139), sobre restauración del espacio natural afectado por actividades extractivas. En el decreto se recoge que los proyectos necesitan una evaluación de impacto ambiental para conseguir el permiso de explotación correspondiente; del mismo modo, han de tener redactado un plan de recuperación de la zona para cuando finalice la explotación.

Aunque entre las 1400 canteras mencionadas anteriormente la mayoría son cavidades u obras de datación desconocida, dentro de ese número también se recogen diversas canteras que han cesado su trabajo en los últimos años sin plan de recuperación. Esto sucede por lo siguiente: como se ha explicado previamente, los permisos dados antes del año 2000 no preveían la obligatoriedad de los planes de recuperación.

El departamento de Industria e Innovación ha expresado su intención de mejorar la situación de estas zonas. Conviene recuperar estas zonas abandonadas desde el punto de vista del paisaje, el valor natural que tienen y la seguridad. Para ello, cada año se destina una





partida específica en los presupuestos del Gobierno Vasco para asegurar e integrar estructuras de minas abandonadas. En 2008 esta partida dispuso de 1.000.000 de euros, en 2009 658.013, y en 2010 se destinarán 340.000.

Con el fin de invertir del modo más efectivo ese dinero y de conocer las necesidades que respecto a este asunto hay en la CAV, presentamos la siguiente proposición no de ley:

PROPOSICIÓN NO DE LEY

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco:

A que en el plazo de seis meses presente el plan de recuperación de las canteras abandonadas en la CAV. En el plan se recogerá la lista de las zonas que han de ser recuperadas, la cantidad de dinero necesaria para efectuar la recuperación, y el calendario que se considere necesario para efectuar la recuperación. Asimismo, recogerá los criterios que se han usado para desarrollar el plan (cuántos años lleva cada cantera abandonada sin ser explotada, el valor natural de la zona en que se ubica la cantera, el nivel de seguridad que necesita la zona, etc.).

A presentar cada año, respecto a lo que se recogerá en el plan, el informe de las inversiones que se quieren hacer en este campo; en el informe se recogerá la lista de canteras que en ese año se recuperarán, las actividades que se llevarán a cabo y la cantidad de dinero que se necesita para realizarlo.

A que, a fin de mejorarlo, presente el plan de recuperación de canteras en el Parlamento Vasco, para que se tomen en cuenta las propuestas de partidos y agentes que pueda recibir.

En Vitoria, a 9 de febrero de 2010

Dani Maeztu Pérez

Parlamentario del grupo Aralar

